Ibarrangeluko Udalak orain dala gitxi esleitu dau Laida auzoan, baselizaren ondoan, ostalaritzarako udal lokal honen alokatzea. Bere instalazio eta zerbitzu zabalak aukera erakargarriak dira kalidadezko eskaintza gastronomikoa sortzeko. Horregaitik, Udalak bereziki kontuan hartu dauz barrikuntza eta proiektua lokalaren kokapenaren ezaugarrietara eta herritarrei bizi-kalitatea eskaintzeko estratigiarara egokitzea. Sasoiko bisitariei, batez be udakoei, zerbitzua emoteaz gain, ahalegina egiten ari da auzoak urte osoan erakargarri izan daitezcan herriko bizilagunen aisialdirako. Zentzu honetan, herriak izan daikeezan garapen-potentzialerako bat kalidadezko gastronomia eta arreta ona eskaintzea da. Ostalaritza benetako aukera da bizitza kulturala eta soziala dinamizatzeke eta lanpostuak sortzeko. Herria dinamizatzeke eta sozializatzeke ardatz gisa, udalak lehentasuna emon deutso lokala egunero zabaltzeke, eta kudeaketak barne hartzea ludiko- eta kirol-arloko ekimenak eta ekintzak, aplikazio teknologikoak eta beste proposamen barritzaile batzuk. Berezi-ki baloratu dau ustiapenak tokiko biztanleak fidelizatzeke aukera emotea eta lokala ibarrangelutarren topagunea izateke. Bere tamaina, ezaugarri eta Laidako hondartzan daukon kokapenagaitik, lokalak aukera emoten dau urte osoan zehar jendea hartzeke eta Ibarrangeluko kultura- eta turismo-jarduerari buruzko informazio-gunea izateke. Esleipenean, ingurumena errespetatzeke neurriak, hondakinen tratamendua eta energia aurrezteke neurriak be baloratu dira.





## KORTEZUBIKO

UDALA

### EUSKARAREN, KULTURAREN ETA KIROLAREN ALDE

Kortezubiko Udalak Euskara Bizibarrizteko Plan Nagusiagaz (EBPN) euskara bere bereizgarri nagusizat jotzen eta bultzatzen dau, eta apustu hau udal-aurrekontuan be islatzen da, 4.800€-ko partidagaz, Gernika-Lumoko euskaltegi publikoetara eta bertako musika eskoletara joaten diran eta Gernika-Lumon erroldatuta ez dagozelenek ordaindu behar daben kostu gehigarria herritarrei diruz laguntzeko. Helburua Kortezubiko herritarren euskalduntzea sustatzea da, geure hizkuntzaren erabilera eguneroko biritza pertsonal, sozial eta profesionaleko egoera guztietan, sare sozialetan, aisialdian... orokortzeko. Laguntza-ildo horren beraren bidez, Segundo Olaeta musika-eskolan matrikulatutako Kortezubiko bizilagunek inbertitutako zenbatekoa konpentsatzeko eta Gernika-Lumon erroldatutakoekaz parekatzeko beharrezko laguntza be jaso ahal izango dabe. Udalaren diru-laguntza jasotzeko, eskabide bat bete eta kuota ordaindu izanaren egiaztatzea aurkeztu beharko da udal-txean. Bestalde, Kortezubik udal-kiroldegirik ez daukonez, herritarrei instalazio egokietan kirola egitea errazteko, Kortezubiko Udalak lankidetzeta-hitzarmena dauko Gernika-Lumoko Udalagaz, Gernika-Lumoko herritarrek Kirol Patronatuan daukozen kuoten eta Kortezubiko herritarrek ordaintzen dabezen artean dagoen alde ekonomikoa diruz laguntzeko. Kultura gizarteratzeak eta biritza aktibo eta osasungarriak udalerriko bizi-kalidatea indartzen dabe.



## MENDATAKO

UDALA

### TOKIKO GASTRONOMIA ETA HERRIA DINAMIZATZEKO KONPROMISOA

Mendatako Udalak, herriko garapen sozial eta ekonomikorako garatzen dauen estrategia aktiboaren barruan, Artape udal taberna jatetxearen eskaintza gastronomikoa barritu dau. Herriko bizilagunen alkargune hau be herri-ostalaritzaren dinamizatzaila da, kalidatezko landa- eta kultura-turismoa erakartzeko, eskualdeko beste udalerrri batzuetatik jendea erakartzeko, eta Santiagorako bidea egitean Mendatara iristen diran erromes ugariei zerbitzua emoteko. Ostalaritza-ekimen hau ostalaritzako hiru profesional euskaldunen eskutik dator, eta ilusioan, lanerako gogoan eta seriotasunean oinarritzen dabe euren planteamendua. Proposamen gastronomikoa zabala da: barran pintxo eskaintza, lehen solairuko jatetxean karta zerbitzua, bigarren solairuko jantoki zabalean batzarretarako hitzartutako menuak, jantokian edo terrazan haurrentzako ospakizunetarako lekua, eta arraina eta okela brasan. Hauen konpromisoa herriaren dinamizazioan laguntzea da, herriko jai eta ekitaldietan parte hartuz eta, beharrezkoa izanez gero, mendatarrak kontratatuz; % 100eko arreta euskaraz eskaintzea, bezeroarenganako zein bere eskaintzaren aurkezpenarenganako, eta sukaldea eten bako ordutegian zabalik izatea eskainiz. Gainera, Mendatak Urdaibain, Biosferaren Erreserban, daukon lekuaz jabetuta, Artapeko atea maiatzaren 15ean barriz zabaldu dauz lantaldeak Kmo produktua erosteko eta ingurumenarekiko arduratsua dan hondakinen kudeaketa mantentzeko konpromisoa hartu dau.



## MURUETAKO

UDALA

### KONTSULTATEGI BARRIA HERRIAREN ERDIAN

Muruetako Udala zerbitzuak birkokatze, berrantolatzeko eta egokitze prozesuan murgilduta dago, herritarrentzat irigarriagoak, funtzionalagoak eta erakargarriagoak izan daitezen, herriko bizi-kalitatea hobetu daiten eta herriko erdigunea erreferentzia eta jarduera gune lez dinamizatzeko, administrazioa jarduerak hartzeko ezezik, kirol, gizarte zein kultura topaketetarako be. Tes-tuinguru honetan, osasuna lehenetsunezko helburua da, herrian osasun-zerbitzu on bat eskaintzea funtsezkoa da, eta, horregaitik, kontsultategi barri bat birkokatu eta egokitu da Udalbarri eraikinean, erdigunean, udaletxe barriaren aurrean, Kanpantxua auzoan, elizaren, frontoiaren, eskolaren, ostalaritzako lokal baten, haurrentzako jolasgune baten eta aparkaleku publiko baten ondoan. Errepide nagusiaren parean dagoan kontsultategi zaharra, Gotzaindegiko Aldai Etxean, itxi egin zan pandemiagatik eta baldintza kaskarregatik. Barria irigarria izango da errepidea zeharkatu behar izan barik, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak zerbitzurik onena eskaintzeko eskatzen dabezen parametro guztiak beteko dauz. Instalazio barriek kontsulta medikoa, erizaintzako kontsulta, itxarongela, biltegia eta bainugela egokituak hartuko dauz barne. 39.731,71 €-ko aurrekontua dauke obrek eta hauek finantzatzeko Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren 38.253,48 €-ko laguntza dauko Udalak. Kontsulta barriaren lekuan antolatzen ziran jarduera soziokulturalak, hala nola erakusketak edo hitzaldiak, Osoko Bilkuren Aretoan egingo dira; gimnasia, tailerrak, bilerak... eskolan; eta ikasteko, lanerako, irakurtzeko..., udaletxeko bigarren solairuko erabilera anitzeko aretoa erabiliko da.



## SUKARRIETAKO

UDALA

### GEHIAGO BEREIZTU, GEHIAGO BIRZIKLATU, GUTXIAGO ERRAUSTU

Hiri-hondakinak gaika batzeko zerbitzuan egindako hobekuntza progresiboek, legegintzaldian zehar egindakoa, izugarri murriztu dabe errausketara bideratutako hondakinen bolumena eta pisua. Herriko hondakin organiko eta ez-organikoen edukiontzien kudeaketa eta kokapena ordenatzeak zaborra bereizteko lana erraztu deutse bizilagunei, eta, horrela, birziklapena areagotu eta ingurumena zaintzen laguntzen da. Herriko leku estrategikoetan hainbat edukiontzi mota, papera eta kartoia, beira, plastikoa, etxeko olio, konposterako material organiko eta hondakin generikoak gordetzen dabezen guneak sortzera bideratu dira ekintzak. Jarduketak Portuondobiden, Plazuelan, Parkean eta Munitizko sarbidean egin dira, eta laster, edukiontzien bosgarren gune bat kokatuko da Abaroa-Portuerreka inguruan kokatuko dan hurrengo urbanizazio baten inguruan. Zaborrontzien berrantolaketa honen barruan, Sukarrietako Udalak herrian dagozen paperontziak oinezkoentzako ikusteko errazagoak diran toki irigarriagoetan birkokatu dauz, hala nola zebra-bideen, pasealekuen eta parkeen inguruetan. Neurri hoiek guztiak Sukarrietako birziklatze-mailetan aurrera egiteko hartu dira, herritarrek etxeko hondakinak eta bide eta espazio publikoetan sortzen doguzen hondakinak eramateko ohitura arduratsuak izan daikezan. Izan be, edozein motatako hondakinak botatzeko erantzukizuna geure ingurunea eta ingurumena zaintzeko modu zuzena da.





**Biotalde**

ELIKADURA-SEGURTASUNA  
INGURUMEN-OSASUNA  
MIKROBIOLOGIA BIOSANITARIOA

Gure zerbitzuak:  
LABORATEGIA  
FORMAKUNTZA ETA  
AHOLKULARITZA

Covid-19aren aurkako  
prebentzio planak



Pol.San Isidro II  
Idorsolo, 15- Dpto.3.2  
48.160 Derio (Bizkaia)  
944 566 589  
info@biotalde.com  
www.biotalde.com

Ezagutza, teknologia, zerbitzua

**pre  
zero**

**BETI HIRITARREN ZERBITZURA**  
INGURUGIROA ZAINTZEN

Bekoibarra, n°31 / 48300 Gernika-Lumo / Tel. 625 47 27

GOURMET  
URDAITEGIA



Pepi Urdaitegiak kalitatezko  
hestebeteak eta delicatessen  
produktu ugarieskaintzen dauz.

Gernikako plaza,7  
48300 Gernika-Lumo  
608 00 14 28



**Torrealday**

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOIA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA

www.torrealday.es • 94 627 00 36



**SAN ISIDRO**

Sociedad Coop. Agrícola Ganadera  
Abeltzain eta Nekazaritza Kooperatiba Eikartea

Bekoibarra, 25pab. 8-14 Edificio Sollube  
48300 Gernika-Lumo  
Tel.94 625 03 20 / Fax 94 625 68 71  
kooperatibasanisidrogernika@gmail.com

www.kooperatibasanisidrogernika.com



**EUSKAL SOUVENIRS**



Andra Mari kalea, z/g  
48300 Gernika-Lumo (Bizkaia)  
94 625 19 30  
www.euskalsouvenirs.com



@euskalsouvenirs



**ARRIBALTZA**  
KAFETEGIA

Barrenkalea, 6  
946 466 084

**ARRIZA**  
KAFETEGIA

Artetikalea  
944 650 698



48300 Gernika-Lumo



**JASANGARRI-  
TASUNAGAZ BAT!**

**Busturialdeko**  
markomunitatea

ONTZI ARINAK  
ENVASES LIGEROS



ORGANIKOAK  
ORGANICOS



PAPERA, KARTOIA  
PAPEL, CARTÓN



BEIRA  
VIDRIO



ERREFUXA  
RESTOS



OLIO ERABILIA  
ACEITE USADO



BERRERABILGARIAK  
REUTILIZABLES



busturialdekomarkomunitatea@bizkaia.org | 94 625 68 84 / 94 625 47 22



# **% 100 URA GARA**

*Bizkaia etorkizunera egokituta zainduz, inbertituz eta mantenduz.*



**Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa**  
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia

[www.consorciod eaguas.eu](http://www.consorciod eaguas.eu)



# SARE SOZIALAK eta euskara

## XABIER ARAUZO URIARTE

*Euskara zuzendari nagusia  
Euskara, Kultura eta Kirol Saila  
Bizkaiko Foru Aldundia*

Aldaketa-prozesu bete-betean sartuta dago euskal gizartea, mundua ere aldaketa-prozesu azkar batean sartuta dagoen hein berean. Besteak beste, elkarrekin harremanak izateko modua, aisia eta informazioa jasotzeko bideak baldintzatuta daude gaur egun, hau da, teknologia berrien garapenaren menpe daude neurri handi batean.

EHUko Hedabideak, Gizartea eta Hezkuntza Ikerketa Taldeak 2019ko uztailean Euskal Herrian egindako inkesta batek agerian utzi zuen Internetek nagusitasuna duela gaur egungo hedabide eta medioen testuinguruan eta, sare sozialei dagokienez, ohiturazko hedabide gisa herritarren ia erdiek erabiltzen dituztela (% 49).

Osasun-krisiak bizkortu baino ez zuen egin zegoeneko martxan zegoen aldaketa-prozesua; horren ondorioz, euskalduntzearen erronketako bat bihurtu da gizarte-harremanetan eta aisialdian euskararen erabilera sustatzea. Izan ere, adituek ohartarazi dutenez, euskara ez da iristen gaur egun gizartea egunero aritzen den guneeetara, besteak beste, sare sozialetara. Hona hemen horren adibide bat: 2016ko Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, adin tarte guztietako euskal herritarren % 74,5ek ez dute euskara inoiz ere erabiltzen sare sozialetan.

Gazteen artean, euskararen erabilera nabarmen egiten du behera sare sozialean, gainerako harreman-kanalen aldean, Gazteen Euskal Behatokiaren arabera. Izan ere, 2016an, 16 eta 24 urte bitarteko gazteen % 35ek euskara erabiltzen zuten lagunekin. Sare sozialean, aldiz, apalagoa da euskararen erabilerari lehentasuna ematen dioten 15-29 urte bitarteko gazteen ehunekoa: 2021. urtean, % 12,7; gainera, portzentaje hori baxuagoa da aurreko neurketakoa baino: % 15, 2018. urtean.

Hortaz, hau izango litzateke erronka: euskararen sustapenean ari diren agente guztien energiak nola batu helburu komuna lortzeko, alegia, ingurune digitalean —besteak beste, sare sozialetan— euskarak presentzia eta erabilera handiagoa izatea.

Erronka horri erantzun nahirik, Eusko Jaurlaritzak, Euskararen Aholku Batzordearen Ingurune Digitalean Euskara Sustatzeko

Batzorde-Atal Bereziaren bidez, gomendio sorta zehatz eta mamitsu bat argitaratu zuen 2021. urtean, 2021-2024 epealdirako. Lanketa horretan, Bizkaiko Foru Aldundiari atxikita dagoen Azkue Fundazioak ere parte hartu zuen, haren helburuetako bat baita euskararen erabilera eta presentzia areagotzea ingurune digitalean. Txostenak, sare sozialen inguruko aipamenetan, gazteengan eta nerabeengan jartzen du arreta berezia, (...) *gizarte osoarentzat egoiak izan daitezkeen politikak sustatzeaz eta ekintzak bideratzeaz gain. Izan ere, ikus-entzunezko edukiak kontsumitzera ohituta daude eta sare sozialean etengabe dabilta.*

Edonola ere, txostenak berak onartzen du sakonago ikertu beharko litzatekeela gazteek zer-nola erabiltzen dituzten sare sozialak, gazteak gako baitira euskararen erabileraren sustapenean. ■





Toña Hondartza, Sukarrieta.

# Sukarrieta,

*kostalde deziraturua*

Urdaibaiko estuariora begira, itsasertzeko txoko ederrenetako baten bihurtune gurasuengatik, Sukarrietak bere itxura berezia Katillotxuko magaletatik itsasadarreraino hedatzen dau, itsasoak eta hareatzek mareek antolatutako txandak egiten dabezen tokiraino.

**S**ukarrieta, mendez mende gutzizatutako gunea izanda, lehenik eta behin, portu gisa daukozen ezaugarri naturalengatik eta, geroago, aisialdirako leku gisa, helmuga turistikoa lez. Bertako paisaien berezitasunak, basoa, harea, haitzak eta itsasoaren arteko etengabeko topaketatik sortuak, bisitariak liluratu eta erakarri ebezan, eta XIX. mendearen amaieran Txatxarramendi irlan hotel bat kokatu zan, garai hartako turismo hasiberriaren artean Sukarrieta ezagutzera emoteko orduan mugarri izan zan hotela. Tokiaren xarmek







Txatxarramendi irlara sartzeko zubia.



Txatxarramendi irlako pasealekua.

gainerakoa egin eben, eta noizbehinkako bitari hoietako batzuek Sukarrietan bigarren etxebizitzak ezartzea erabaki eben. Etxeak eta kasu batzuetan eraikin txikiak tokiko biztanleriaren etxebizitza eta baserriekaz tartekatuz joan ziran, udalerriko hiri-ingurunearen nortasun berezia sortuz.

Sukarrietak bisita lasaia merezi dau, sentsazioen besarkada sentitu ahal izateko: Portuondotik Marisma parkeraino hedatzen dan paisaia idilikoa, baso eta landazabaleko mendi-magal berdeak, Txatxarramendi eta Kanalako artadia, edo itsasbeherak agerian uzten daben hareatza erraldoiak, itsasaldiak garbitu bariak, zentzumenentzako opari dira.

Sukarrietaren historia zabala eta bere itsasertzen xarma ezagutzeko ibilbide ezin hobea da Portuondoko badiatik Txatxarramendi irlarainoko doan ibilbidea; bista ederreko paseoa da, eta, handik igarotzean, interpretazio-mahai bi topauko doguz: bata, Portuondoko senaiaren bidean, eta bestea, Txatxarramendi irlan, bietan bertako antxinako erromatar por-

tua izan zana agertzen da. Itsasadarren paisaia lasaia eta parke botanikoaren natura oparoa guztiz desbardinak dira, azken hau estuariora edegitzen da, ontzilerlekuan panorama liluragarria erakutsiz.

Beste ibilbide interesgarri bat, batez be Sukarrietako bi arimak, mendia eta itsasoa, ezagutu gura badoguz, ibilbide osasungarria da. Ibilbide hau Marisma parketik abiatzen da eta bertan panel batetik Abaroa eta Munitiz auzoetara igotzen diran magaletan barneratzeko behar diran argibideak eskaintzen deuskuz.

Bide hoietatik, lizarrez, gaztainondo eta haretzez osatutako baso bitxietan barrena, gero eta gorago goaz, itsasadarreko panoramika onenetako batez gozatzeko goitik begiraturata.

Sukarrietako paisaien eta ekosistemen multzoak eta kontrasteak Oka itsasadarren eskumaldean jarraitzen dabe, udalerraren zati bat, Kanala auzoa, estuarioaren beste aldean dagoelako, artadi kantauriarren menpe; beste giro bat eta beste begirada bat. Legendikako Santa Maria eleizak eta kanposantuak paisaiagaz naturaltasunez bat egiten dauen multzo harmoniatsua osatzen dabe. Paduren bista ederrak ikusten dira Talaia hontatik. Txatxarramenditik Kanalaino itsasoz iristea aukera paregabea da txango desbardin eta ahaztezin baterako, eta itsasadarrean zehar itsasontziz egiten dabezen bidaia-zerbitzuak, "ferryak" dira aukerarik onena.

Sukarrietako jardunaldia amaitzeko, presa barik bertako ostalaritza-lokaletako giro onaz eta eskaintza erakargarriaz gozatzeko bezalakorik ez dago, Marisma parkean, San Andres plazan edo Kanalán, gogoratu beharreko bisita baten amaiera ezin hobea. **UM**



A man with white hair, wearing a dark suit, a light blue and white striped shirt, and a dark tie, stands in the foreground. He is looking directly at the camera with a serious expression. Behind him are several large, colorful, reflective sculptures in shades of yellow, pink, blue, and green. The background shows a cityscape with buildings and trees under a clear sky.

*"Etorkizuna gaur  
hartzen doguzen  
erabakiekaz egiten  
da"*



# Juan Ignacio VIDARTE

Esperientzia profesionalak, kulturarekiko eta artearekiko sentsibilitateak eta ikuspegi ekintzaileak osatzen dabe ekonomian eta finantzetan daukon prestakuntza akademikoa. Jose Ignacio Vidartek mende laurdena bete dau Guggenheim Bilbao Museoaren burugisa, eta 2008tik Solomon R. Guggenheim Foundationen Estrategia Globalaren zuzendari nagusia da. Ardura horrek Guggenheim Bilbao Museoaren garapen-estrategia eta honen proiektzioa Urdaibain hartzen dauz bere baitan, eta azken honegaz familia-lotura dauko.

## **JUAN IGNACIO VIDARTE** *Guggenheim Bilbao Museoko zuzendari nagusia*

### **Guggenheim Bilbao handitzeko estrategiaz gain, zerk lotzen dau Jose Ignacio Vidarte Urdaibaigaz?**

Urdaibaigaz oso gertuko familia-lotura daukot, Kanalagaz hain zuzen be. Betiko harremana. Nire aititeren arreba, nire aitaren aitarena, Mariana Vidarte andrea irakasle izan zan Kanalán bizitza osoan, eta han bizi izan zan. Horregaitik, nire aitak harreman handia eukan Kanalagaz. Umetan joaten ginan ikustera eta han egotera. Aitaren ametsa beti izan zan Kanalán etxe bat izatea, eta azkenean, 60 urtegez, egia bihurtu zan. Nire aita hil zan, baina nire amak denbora asko emoten dau han.

### **Noiz eta zergaitik planteatzen da Guggenheim Bilbao handitzea?**

Istorio luze samarra da. Urdaibaiko handitze-proiektua proiektu estrategikoa da Guggenheim Bilbao museoarentzat orain dala 14 edo 15 urtetik. Lehenengoz, 2008. urtean planteatu zan, lehen 10 urteak bete ondoren. Une hartan pentsatu genduan beharrezkoa zala museoarentzat hausnarketa estrategikoa bat egitea, ikuspegi luze batez. Urte hauetan garatu

doguzen hainbat ekimen estrategikoa zehaztu ziran. Helburua 2020an bere garrantziari eustea zan. Hausnarketa-eremuetako bat honakoa izan zan: 2020an, museoak 25 urte daramatzanean, etxe honek balio izaten jarraituko dau edo zerbait gehiago beharko da? Epe horretan museoak handitzea beharko ebala pentsatu genduan. Gogora daiegun, Guggenheim Bilbao proiektua garatzeko Eusko Jaureritzan eta Bizkaiko Batzar Nagusietan behar adina gehiengo izateko beharrezkoa izan zan negoziazio politikoaren ondorioz, akordio bat lortu zala, eta, horren ondorioz, hasieran proiektatutako museoaren azalera % 30 inguru murriztu zala. % 30 hau barik ondo bizi izan gara, baina, jakina, bere mugak dauko. Murrizketa honek esan gura dau geure bilduma iraunkorraren zati oso mugatu bat bakarrik aurkezteko gai garala. Ikuspuntu honetatik, 2020ra begira handitu egin beharko zala pentsatu zan. Baina pentsatu genduan handitzearen gauzarik garrantzitsuena ez zala metro karratuak gehitzea, baizik eta, batez be, lehendik eukozenak ez bezalako metro karratu batzuk gehitzea. Horrela, museoak jarduerak harleikezan, sorkuntza artistikoaren esparruak, zeinetarako museoaren ohiko hormak ez baitziran espaziorik onena.

### **Zergaitik planteatu zan museoaren egungo eremutik kanpo handitzea?**

Bilbon bertan zabaltzea pentsatu genduan eta Gehrygaz berba egin genduan. Berak pentsatu eban museoa oso ondo geratu jakola, eta, bestetik, museoa sortu zanean, 91-92an, Abandoibarra inguru guztia gune marjinala zala, baina 2007-2008 aldián aukera-gune bihurtu zan, eta inguruan ez egoan azalera handirik museoa hemen handitu ahal izateko. Egoera bikoitz hau dala eta, oraindik be nahiko barritzailea dan ideia batean pentsatzen genduan, geure egungo espazioaren ondoan fisikoki ez dagoen zabaltze batean.

### **Ze aukera aztertu ziran Urdaibaira iritsi aurretik? Eta zergaitik Urdaibai?**


Alternatiba desbardinak ikusi genduzan, hurbileko espazioetan pentsatu genduan, Bilbo inguruan, industria-espazioetan... Profil oso desbardinak pertsonak osatutako lantalde bat sortu genduan: artistak, arkitektoak, intelektualak... gogoeta horretan lagun gengiezan, eta hortik sortu zan handitzeko ideia museoa danaren antitesia moduko bat izateko. Izan be, Guggenheim Bilbao museoak, museo modernoa izan arren, esperientzia tradizionala suposatzen dau. Eta errealitate honek aukera emoten euskun ia antitetikoa >>>

*Handitzeak biosferaren erreserban eragin negatiborik ez izatea ez ezik, eragin positiboa be izan daikeela espero dogu.*

izango zan esperientzia bat bilatzeko, osagarria izango zana, hiriko museotik eremu natural batean arteagaz kontaktua izateko aukera emongo eban espazio batera joateko, esperientzia azkar samarrek sortu beharrean esperientzia lasaiak eskainiko ebazana; esperientiaren garrantzia artearen behaketa tradizionalak ez markatzea, baizik eta zentzu guztietan esperientzia bat izatea, adierazpen artistiko hibridoagoak ekiteko aukera emongo euskun espazio batean. Espazioak diziplinak gurutzatzen diran esperientziak aurkezteko aukera emotea, artearen eta beste diziplina batzuen (diseinua, gastronomia, naturarekiko harremana...) arteko loturak aurkezteko aukera emotea. Hurbileko ze espaziok izan leikez ezaugarri hoiak eta Bilboko esperientziagaz lotutako esperientzia bat eskaini? Jakina, Urdaibai. Horregaitik proposatu zan 2008an zabaltze-ekimena.

**Halanda be, ez eban aurrera egin...**

Lehen alkarrekintza hartan egokitze perfektua aurkitu genduela emoten eban. BBK Udalekuak birkokatzea pentsatzen ari zan, eta, honi esker, Sukarrieta Bilboko





museoaren handitze etena, antitetikoa eta osagarria egiteko kokaleku lez hartu zan. Baina 2008-2009 urtean, krisi ekonomikoaren ondorioak nabaritzen hasi ziran, eta ikusi zan ez zala errealista pentsatzea erakunde publikoek baliabideak erabili ahal izango ebezela handitze ha finantzatzeko, eta mahai gainean uztea erabaki genduan, egoera ekonomiko egokiagoa iritsi arte. Era batera, kontrako mugimenduak sortu ziran, eta, edozelan be, oso gatxa izango zan lehen aukera horrek aurrera egitea.

### **Orain bigarren aukera bat dator...**

Proiektuak bizirik jarraitzen dau guretzat, 2020ra begira definituta geneukan ekimen estrategikoetako bat dalako. Hamabi urte hauetan ikusi dogu jatorrizko proiektuaren, eredu kontzeptualaren, ze alderdi dagozen indarrean eta zeintzuk ez, eta orain dala pare bat urte, batez be Next Generation funtsekaz, pandemiak sortutako egoeraren ondorioz, barrirra be mahai gainean jarri da proiektua eta hau aktibatzeo aukera. Gainera, honegaz batera, bi alderdi oso garrantzitsuk aberasten dabe jatorrizko proiektua. Bat da museoak jasagarritasunaren aurrean daukon erantzukizuna, argi eta garbi garrantzizkotzat jo dana, eta proiektu hau aparteko bidea da museoa eta museoak jasagarritasunaren arloan garatzen dabezen jarduerak lotzeko. Eta beste bat, jatorrizko kokalekua, hainbat arrazoiegaitik baztertua egoana, kokapen anizkoitzagatik ordezkatzea. Hau da, handitzeko bi kokaleku egotea, bata Muruetako ontzioletan eta bestea Gernika-Lumon, Daliako instalazio zaharretan, biak lehendik dagoen bidezidorretik konektatuta, oraindik Muruetaraino iristen ez dana, baina oso gertu dagoena.

### **Ze onura dakarkio proiektuari kokapen bikoitzak?**

Iruditzen jakuzan abantaila handia erantsen eutsola proiektuari, Biosfera Erreserbaren bihotzean, ontzioletan, kokatuta dagoen handitzearen zatirako sarbidea ibilgailu pribatua izan beharrean ibilgailu ez pribatua izatea ahalbidetuko ebalako. Horrela, Gernika-Lumo handitzearen sarrerako ate gisa funtzionatuko eban, eta bi espazioen arteko lotura bide jasagarrietatik egingo zan: trenbidetik, bidetik bertatik, bizikleta elektrikoekaz, autobusekaz... Eta ibilgailu pribatua Muruetara sartzeak sor leiken inpaktua saihestea.

### **Guggenheim Bilbo eraldatzeko pizgarria izan da. Urdaibain Guggenheim museo bat izatea geure eskualderako garapen faktore garrantzitsua izan daitekela uste dozu?**

Uste dot hortik etor daitekela erakundeek proiektua babesteko daukeen interesa be, handitze horrek eragin positiboa izan daikeelako, museoak Bilbon izan eban bezala. Busturialdean Biosfera Erreserba bat dago eta horrek jarduera ekonomikoa baldintzatzen dau. Urdaibai berezia da, ez bakarrik bere paisaia-edertasunagatik, baita Erreserbako giza jardueraren funtsagatik be.

Urdaibaik bere horretan jarraituko dauela bermatzeko, natura babestuta egongo dala bermatu behar da, eta funtsezkoa da, halaber, giza jarduera zaintzea; bestela, Urdaibaik, ezagutzen dogun moduan, existitzeari utziko deutso. Biosfera-erreserba bat mantentzeko baldintzekaz bateragarriak diran jarduera ekonomikoen artean, museoa eta lotutako jarduerak dagoz. Horregaitik uste dogu eragin positibo hau garapen ekonomikoaren ikuspegitik be izan daikeela.

### **Zelan aurreikusten da bateragarri egingo dazela ekonomia- eta ingurumen-jasagarritasuna?**

Turismo jasagarriari lotutako sorkuntza ekonomikoko iturri izan daitekeen heinean. Inoiz ez da gura izan eta ez leuke zentzurik izango Urdaibain Guggenheim Bilbao eredu birsortzea. Ez dauko zentzurik Guggenheim Urdaibaira urtean milioi bat bisitari etortzea. Jasanezina litzateke. Helburua ez da hori. Helburua da bisitariak erakartzeo gaitasun nahikoa izatea, espazio horrek funtzionamenduan jarrai daiazan eta jarduera bat sor daiazan. Proiektuaren sorreran egin genduan merkatu-azterketan, urtean ehun eta berrogei mila bisitari izatea zan geure asmoa. Ez litzateke hileko batez bestekoa izango, kontzentrazio handiagoko uneak egongo litzatekezelako, maiatzetik urrira bitartean, adibidez. Bilboko museora datozenei oso lotuta dagozan bisitariak izango ziran, fluxu hori egon daiten. Kalidazeko turismoa izatea da geure asmoa, kulturagaz lotutako esperientzia batek mugituko leukeena, bisita laburrekoa ez dan bisitariak. Proiektu hau ez da Busturialdean dagozan gainerako baliabideetatik isolatuta planteatzen, bai zik eta inguruan dagoan ondare eta kultura aberastasunaren elementuak balioan jartzea eta kalidazeko ibilbideak eta bisita-fluxuak bultzatzea.

>>>

*Espero izatekoa da proiektua eskualdearen eraldaketaren ikuspegi estrategiko eta zabal baten zati bat izatea.*



**m** *ezagu-tuz mendata*





Muruetako ontziolak.

### Zelan aurreikusten da eragin positibo hau?

Museoaren handitzearen eta Urdaibairen arteko loturak oso sentikorra izan behar dau museoaren kokapenarekiko. Geure ustez, oso garrantzitsua da helburu-ekarpen positiboko irizpideei eustez gain, handitzeak erreserban eragin negatiborik ez izatea ez ezik, dagoan egoera hobetuko dauen inpaktu positiboa izatea be. Gogoratu behar da bi orube eraberritu gura doguzela, une honetan industria-hondakinak eta jarduera txikiko ontziola bat hartzen dabezenak. Eragin positiboa sortzen saiatzen gara. Hau egin ahal izateko, uste dogu garrantzitsua dala funtzionamenduan urtarokotasun-irizpide bat izatea, handitze horren funtzionamendu-erritmoak urtean zehar aldatzea. Gehieneko jarduera-uneak izatea, jarduera-une motelagoak izatea eta urtean zehar tarteko jarduera-uneak izatea.

### Ezar al leiteke paralelismorik Guggenheim Bilbao Museoak Arte Ederren Mu-

### seoari emon deutson bultzadagaz?

Hori da. Adibide ona da. Gogoratzen dot be, halaber, Guggenheim Bilbao Museoaren proiektuaren jatorrian kritika ugarietako bat hori zala. Nik uste dot zero gehitzen dabezen pentsamoldeak dagozela, uste dot pentsamolde batzuek uste dabela batentzat ona dana beste batentzat txarra dala. Ez da oso pentsamolde aberatsa, oso pobregarria da. Kasu honetan horrek ez dau funtzionatzen. Beste adibide bat: marea igotzen danean, itsasontzi guztiak igotzen dira. Ez leuke zentzurik izango 500 mila pertsona Guggenheim Bilbao Museoak ikustera etortzea eta 200 metrora dagoen museo batera hoietako bat bera bez joatea. Ehuneko handiagoo edo txikiagoo izango da, baina, jakina, ez dira lehen baino bisitari gutxiago joango, gehiago joango dira. Bestalde, gertatu dan bezala, museo bat eraldatzeko ahalmena daukan azpiegitura batean inbertitzen dala frogatzen bada, eta, beraz, gizarteak elementu positibo lez baloratzen badau, eta ez luxuztat soilik, horrek errazagoa eta logi-

koagoa egiten dau beste kultur erakunde batzuek proiektuak daukozenean proiektu hoiek harmen hobeagoa izatea.

### Garapenari dagokionez, Busturialdeko herritarren sektore batek industria eskatzen dau. Aurreikusi al daiteke tokiko ekonomiarako bultzatzaile izan daitekezen sormen-industriak garatzea?

Museoak lortu gura dauena, eta hori da, geure ustez, handitzeak izan lezakeen balioetako bat: diziplinen arteko jarduera sortzeko, sormen-diziplinen arteko eta ikerketaren diziplinen arteko harremana bultzatzeko espazioa izatea. Hasierako programazio-eskeman, hiru ardatz dagoz, eta guztiak urtarokotasun-izaerakoak dira. Hoietako bat erakusketa programazioaren jardueran zentratzen da, erakusketak egongo dira, batez be Muruetan kokatuta pentsatzen ari garen espazioan. Museoak bilduma iraunkorreko obrak bertan etengabe jarrita egon daitezke. Programazioaren beste ardatz garrantzitsu bat urteko ekitaldi bat da, urriaren inguruan





bat garatuko litzateke. Horrela, urtero Urdaibain artista desbardinak, ikertzaileak... egoteko asmoagaz. Funtsean, han garatuko diran konexioak sortzea izango litzateke. Geure ustez, horrek guztiak hazitegi bat sor dezake sormen-industria hoiek garatzeko, edo sormen-industriekaz lotutako jarduerak sortzeko, ez bakarrik inguru horretan, baina, geure ustez, bertan dagoenez, ingurua egoera ezinhobean dago hoiek atzemateko.

**Zer esan daiteke epe posiblei buruz?**

Guk geure epeen aurreikuspenak doguz, baina une honetan espekulatzea litzateke. Proiektua nahiko heldua dago eta museoaren patronatuaren onespena dauko, baina oraindino proiektu fasean dago. Proiektuari ez jako argi berderik emon exekuzio-fasean entrega-epeak izan daian. Eta hau ez da horrela oraindik, ez baitago behar bezala erabagita proiektua finantzatzeko egitura bermatuko dauen erakunde arteko akordioa. Hori abian jarzen danetik aurrera hasiko dira zenbatzen epeak.

**Zelan bermatuko da bideragarritasuna?**

Kontuan izan behar da museo honek

bere funtzionamendurako finantzaketa-egituran, ekarpen publiko bat daukola, baliabideen %30 inguru, eta gainerakoa museoak berak sortzen dauela. Finantzaketa-egitura honeguz, museoak funtzionatu egiten dau. Horrelako proiektu bati ekiteko, erakundeen laguntza behar da, batez be, erakundeen arteko laguntza. Urdaibaiko museoaren funtzionamendua Guggenheim Bilbao museoaren funtzionamenduaren barruan egongo litzateke. Finantzaketa-egitura iraunkorra bermatzeko, inbertsioa finantzatzeko egitura bat egoteaz gain, handitze horrek museoaren kontuetan eta ekarpen publikoetan izango dauen eragina onartuta egotea aztertzen da.

**Ekonomiako aditu gisa eta Bilboko esperientziagaz, ze itzulera aurreikus daiteke eskualderako enplegu eta aberastasun ekonomikoari dagokionez?**

Inpaktu-maila kopuru absolutuan pentsatzen ari bagara, ez da Bilboko museoaren bardina izango, bisita-maila txikiagoa izango baita. Baina egia da, halaber, kopuru erlatiboetan eskualdeak Bilbok baino dimentsio txikiagoa daukola. >>>

*Zonaldean dagozen ondare eta kultur aberastasunen elementuak balioan jarriko dabezen proiektu lez planteatzen da.*

Gernika-Lumon egin daitekela pentsatzen dogu. Foro horretan artearen, ekologiaren edo ikerketaren arteko harreman-esparruetan lanean ari diren pentsalariak, intelektualak, artistak eta arkitektoak bilduko litzatekez. Urtero gai bat egongo litzateke hausnarketa horren ardatz. Eta hausnarketa horretatik abiatuta, eta hau izango litzateke programazioaren hirugarren ardatza, urtean zehar egoitza-programa



Dalia, mahai-tresnen fabrika zaharra, Gernika-Lumo.

Konparazioa egitean, horrek eragin ekonomikoa izango dauela pentsatzea ez da zentzubakoa. Aztertzen ari garen kalkuluen arabera, handitzea martxan dagoenean, urtean 40 milioi euro inguruko jarduera osagarria sor daiteke inguru honetan, batez be bisitariak lotura handiena daukeen eremuetan: garraioa, merkataritza edota ostalaritzagaz lotutakoak. Enpleguari dagokionez, eredu ekonometrikoak dira, 700 enplegu inguru. Ikuspegi kualitatibotik zenbakietan sartu barik, argi dago. Inguruan dagoen ondarea balioan jarrita dago, eta, beraz, nahiko erraza da Gernika-Lumora eta Muruetara doazen 140 mila bisitari hoiak Urdaibaik daukozen beste erakargarri batzuk ezagutzera joatea, eta hori, jakina, jendea gerarazten dauen heinean, jarduera sortzen dau bertan, eta jarduera horrek eragin ekonomikoa dauko. Ez da kohete bat jaurtitzea ilargira

#### **Uste dozu eskualdea prest dagoela?**

Oso garrantzitsua da lehenetik dagoenari, asko dala, balioa emoteko egiten dana, erakarri gura dogun turismo motaren ideiaz egitea. Erakarriko dogun turismoa hondartzara doana ez bada, ondarea balioan jartzerakoan ildo edo joera hori jarraitu behar da. Kalidadearen ikuspegitik, bikaintasunaren eta posizionamenduaren ikuspegitik, jakin behar da maila batean edo bestean kokatu gura dogun. Ez dago bat bestea baino hobirik, baina batzuetan guztietarako apustua egin gura izaten da, eta hori da errezetarik onena ezer ez lortzeko.

#### **Zelan egokituko da proiektua eskualde- ra eta alderantziz?**

Proiektu hau errealitate bihurtuko balitz, espero izatekoa da proiektua ez izatea perretxiko isolatu bat, baizik eta eskualdearen eraldaketaren ikuspegi estrategi-

koago eta zabalago baten zati bat. Neure ustez, hori horrela da ondareari balioa emotearen ikuspuntutik, irisgarritasunaren eta trenbide-baldintzen ikuspegitik. Koherenteak izan gura badugu, geure ustez lor daitekezen helburuak bete gura badoguz, modu integratuean lan egin behar da. Bilbo-  
ren kasuan bezala, ez leukean eragin bera izango hiriaren garapen-jarduera bakarria izan balitz.

*Uste dogu eragin positiboa izan daikeela, turismo jasangarriari lotutako sorkuntza ekonomikoko iturri izan daitekeen heinean.*

#### **Aurton, Guggenheim Bilbao Museoa 25. urteurrena beteko dau. Ikus al daikezu etorkizunean Guggenheim Urdaibai museoaren handitzearen 25. urteurrenaren eszenatokia?**

Amesten dogun bezala planteatuko dogu. Hogeita bost urte geroago pentsa daiteke museoak bere inguruan jardueren loraldia eragingo ebala, zientziaren, teknologiaren, artearen eta ekologiaren munduaren arteko loturen loraldia. Espazio horren eta, adibidez, ikerkuntzan lanean ari diran zentro teknologikoen eta unibertsitatearen artean elkarreragin eta lotura handia egotea eragin izana. Pentsa daiteke Busturialdeko kultura-ondareari balioa emoten lagunduko leukeela, ekosistemaren jasangarritasuna bermatzen lagunduko leukeela, ez

bakarrik naturaren ikuspegitik, baita pertsonak Busturialdean bizitzen jarraitzea eragingo leukeen jarduera sortzearen ikuspegitik be. Ez dot uste zientzia-fikziozko amets bat danik, nik uste dot lor daitekezen gauzekaz amets egitea dala. Jakina, hau lortzeko faktore asko behar dira, inguruneak lagundu behar dau, tes-tuinguruak lagundu behar dau, egoera ekonomikoak lagundu behar dau, danak lagundu behar dau. Ukrainaren inbasio bete-an gagoz, baina hau alde batera utzita, apustu egin behar dala uste dot. Argi dago etorkizuna gaur hartzen doguzen erabakiekaz egiten dala. **UM**



**LGK LOGÍSTICA**

GARRAIOA,  
BILTEGIRATZE,  
BANAKETA...

Txaporta industrialdea, 2-1  
48300 Gernika - Lumo  
(Bizkaia)

Tel. 94 625 03 85  
Tel. 94 625 75 40  
e-mail: lgk@lgk.es

CARMELO

QR code



**Arrien Optika**

Urkieta k. 10  
Tel./Fax: 946 25 63 63  
Email: arrienoptika@yahoo.es



# kulturklik

www.kulturklik.euskadi.eus

Agenda  
kultural osoa,  
*klik* batean

Toda la agenda  
cultural,  
en un *klik*

Tout l'agenda  
culturel  
juste à un *klik*

All the cultural  
agenda  
in a single *klik*



kulturklik

THEATER

DANSE

AUDIOVISUALES

CONCIERTOS

BILBAO  
POESIA

JORNADAS

ACTIVITÉS ENFANTS

JAIALDIAK

CONTESTS

EXHIBITIONS

PARTIES

BERTSOLARITZA

IKASTAROAK-TALELARRAK

CONFERENCES

...

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# tokiko demokraziaren arrakasta

**ANEXION # DESANEXION**  
 Por amplia mayoría en la consulta de ayer

**Forua, Kortezubi, Nabarniz y Murueta, por la desanexión de Gernika**

**HERRI - ITAUNKETA**  
**CONSULTA POPULAR**  
**1986 - XII - 21**

**HERRIARI ITAUNKETA**  
 anexio Ba-  
 a-Lumoko  
 lako baldin-  
 izioaren alde

¿Es favorable a la desane-  
 xión de la Anteglesia de Murue-  
 ta para constituirse en Municipio  
 independiente en las condiciones  
 pactadas por la Gestora de De-  
 sanexión de Murueta y el Ayun-  
 tamiento de Gernika-Lumoko?

**EZ / NO**

**BAI / SI**

**MURUETA**  
**MURUETA**  
**ETA KITTO**

vecinos de cuatro iglesias anexionadas en Gernika en 1967 dieron ayer, en una consulta popular, el veredicto en favor de la desanexión y de las pedidas pendientes.

Efe  
 Bilbao

En Forua, con 722 vecinos y una participación de 33,3%, votaron a favor de la desanexión un total de 155, mientras que hubo 105 votos en contra, dos nulos y una abstención. En la Anteglesia de Kortezubi, con 318 vecinos, votó el 77% del censo a favor de la desanexión. De ellos 216 se inclinaron por la desanexión y 102 se opusieron.

En Murueta, con un censo de 196 censados, se registraron 114 votos a favor y 30 en contra. Tras esta consulta, la Corporación del Ayuntamiento de Gernika deberá decidir si o no la desanexión de Murueta en una sesión plenaria. Después de comunicar el resultado a la Diputación Foral de Bizkaia, serán las Juntas Generales las que, a comienzos de 1987, aprueben definitivamente la desanexión de las cuatro Anteglesias.

Los movimientos de desanexión fueron encabezados en 1981 por vecinos de Murueta, que protestaban por los retrasos en las subvenciones y pedían desgravaciones a los caseríos. La Corporación de Gernika declaró estar dispuesta a conceder la desanexión, aunque el entonces alcalde, Dionisio Duñabeitia, comunicó a los representantes de las Juntas Forales que la tramitación se retrasaría, ya que había que rea-

Ajangiz, Arratzu, Foru, Kortezubi, Murueta eta Nabarniz udalerrri independenteak dira gaur egun, baina ez da beti horrela izan. Diktaduran zehar sekuentzia historiko bat bizi izan eben, udaletxe propioa izatetik Gernika-Lumon integratuak izatera igaro ziran. 1991tik aurrera, guztiek independentzia berreskuratu eben desanexio prozesu gogorren ondoren, tokiko demokraziaren jarduera interesgarria.

**E**rregimen frankistak udalerrien anexio ugari derrigortu ebezan, nahiz eta agiritan borondatezko zatik jo. Gure eskualdean, Ajangizen kasua izan zan hau 1942an, eta Arratzu, Foru, Kortezubi, Murueta eta Nabarnizen kasua 1966an. Guztiak Gernika-Lumoko parte izatera pasa ziran.

Nortasun-sentimenduak bizirik zirauen, eta diktadorea hil ondoren, demokrazia finkatu ondoren, herri askotan piztu zan udalerrri-estatusa berreskuratzeko sentimendua eta ekimena, eta euren independentzia eskatu eben. Muruetaren kasuan, oraintsu ospatu dau Gernika-Lumoko desanexioaren 35. urteurrena, eta desanexioa prozesua gogorra izan zala gogoratu dau Bittor Olabarriaga Arrizabalagak, Muruetaren desanexioaren ondoren alkatea izan zana: "geure lehen esperientziak eta ikasketak, lurretan egindako bilera erdi klandestinoekaz hasi ziran. Gero mugimendu



bat sortu zan Foruko gazteen artean eta eurekaz modu sekretuan batzen ginan. Bileran batean Gernikako orduko alkatea agertu zan, eraikina husteko". Zailtasunak zailtasun, udalerrri guztiek aurrera jarraitu eben euren asmoekaz. «Urte zailak izan ziran, herrietako ordezkari batzuen artean adostasunik eza egoan, azkenean, banatu egin behar izan genduan», gogoratzen dau Bittor Olabarriak. 1991tik 1993ra bitartean, Busturialdeko sei udalerriek Gernika-Lumo desanexionatzea lortu eben.

### BANANTZEAREN PAUSUAK

1982an, Bizkaiko Foru Aldundiak azterketa sakon bat egin eban Foru, Kortezubi, Murueta eta Nabarniz banantzearen bideragarritasun juridiko eta ekonomiko frogatzeko, eta 85ean, jarraitu beharreko jarduketak finkatu ziran. Lehenengo pausua herri-galdeketa egitea izan zan. Lau udalerrietan, 1985eko maiatzaren 12an ospatu zan. Forun, % 65ek baietz esan eutsoen desanexioari; Muruetan, % 54k; Nabarnizen, % 91k; eta Kortezubin, % 87k. Bigarren pausua Gernika-Lumoko Udalak banantzeak onartzea izan zan. Hirugarrena, auzo-kontsulta barri bat, baina oraingoan desanexioaren baldintzen ezagutza zehatzagaz. Kontsulta historiko hori 1986ko abenduaren 21ean egin zan, eta emaitzek aurreko kontsulta hobetu eben. Forun %78k bozkatu eban desanexioaren alde, Muruetan % 79k, Nabarnizen % 90ek eta Kortezubin % 88k. Muruetan, lehenengo eta bigarren bozketen arteko aldeko botoak nabarmen igo ziran, eta horretan zerikusi handia izan eban Bittor Olabarriaga Arrizabalagak, garai historiko hartan alkate izan zanak. *"Bideragarritasun ekonomiko azaltzea funtsezkoa izan zan, gastuak eta diru-sarrerak zeintzuk ziran azaltzea, eta zelan pentsatu genduan gastuak jaitea beste udalerrri batzuek langileak partekatuz. Aguazila eta idazkaria Foruagaz partekatuko geunkez"*, azaltzen dau Bittor Olabarriagak. Kortezubik eta Nabarnizek be langileak partekatuko ebezan.

Azken pausua Bizkaiko Foru Aldundiak Batzar Nagusien Osoko Bilkuran onartzea izan zan. Bozketan 1987ko martxoaren 13an egin zan, eta emaitza hau izan zan: 40 boto emon ziran; aldekoak, 38; aurka, 0; abstentzioak, 2; baliogabeak, 0. Eus-



Arratzu, desanexioaren urteurrena

kadiko Ezkerrak abstentzioa emon eban, eta honela azaldu eban bere botoa: *"Gernika-Lumori derrigorrez erantsitako sei elizateen erabateko normaltasunera iristeko ahalegin berezia egin beharko zan, azken txanpa honetan Ajangiz eta Arratzu atzean utzi barik...ez gagoz ados espedienteetan jarraitutako prozesuagaz, ez baitira sei elizateak batera amaitzen, eta horrek zera egiten dau: geure botoa ez izatea aldeko botoa, abstentzio-botoa baino. Baina honakoa adierazten dogu, funtsean, biziki pozten garala entitate hоек euren udal-subiranotasuna berreskuratzen dabelako eta askatasunez funtziona dairelako herri gisa jasotzen daben eskubide horren arabera"*.

1990ean, Ajangizen desanexioa onartu zan, 1991ko urtarriletik aurrera indarrean sartuz, eta Oka ibaian beste muga geografiko bat ezarri zan; ondorioz, Errenteria auzoa Gernika-Lumoko jurisdikzioan geratu zan. Arratzuk 1993an bere independentzia berreskuratu eban.

Murueta eta Nabarnizen populazino-dimentsio eskasak euren independentziari aurre egiteko kezka eragin eban; halanda be, Lurralde eta Udal Ekintzako foru diputatuak bozketaren egunean adierazi eban: *"gaur egun daukeen biztanleriagatik laugarren eta bosgarren postuan egongo litzateke ilaran. Halanda be, ez dogu ahaztu behar Bizkaiko udalerrien %40 baino gehiago ez dirala mila biztanle izatera iristen; beraz, uste dot argi geratzen dala zein dan Bizkaiko udalerrien benetako populazino-egitura, eta, neure ustez, gaur egun sortzen direnak inolako zailtasun barik integratzen dira egitura horretan"*.

Bizkaiko Batzar Nagusien Osoko Bilkurak nabarmendu eban nortasunaren errespetua, garrantzi handieneko kultura-balioetako bat dan aldetik. *«Zorionez izan daitezela haien erri jabadun eta kondairan zear euren a izan daben istorioaren erantzule eta aurrerrantzean adurik onena izan dadin zoriona arazu guztiak erriaren auke-eririk onenean aurrera eroateko»*. **UM**



Murueta, desanexioaren 35.urteurrena.

# Bitoriano Gandiaga

\*ORBELAUNGO\*  
\*POETA\*

Naturaren maitale eta eza-  
gutzaille bikaina, fede-gizo-  
na eta euskal nortasunaren  
defendatzaile sutsua, Bito-  
riano Gandiagak euskaraz  
idatzitako poesia goratu  
eban XX. mendeko literatur  
panoramaren goreneraino.  
Euskaltzaina, frantzisko-  
tarra, poeta eta menda-  
tarra, Gandiagaren bizitza  
eta lana ulertzeko orduan  
beren kabuz berba egiten  
daben balioen koktela da.

**B**itoriano Gandiaga Artetxe  
Mendatako Orbelaun ba-  
serrian jaio zan 1928an. 8  
urte besterik ez ebazala Gernika-Lumoko  
bonbardaketa gertutik bizi izan eban  
Mendatetik, bonbardatu eta sutan utzi  
eben hegazkinek gaintetik hegan egiten  
ikusi ebezan, oroitzapen dramatikoia eta  
ezabaezina. 12 urtegar frantziskotar orde-  
nan sartu zan eta Forun, Zarautzen, Erri-  
berrin (Olite) eta Arantzazun ikasi eban. 26  
urtegar apaiztu zan eta Arantzazun plas-  
tika eta euskara klaseak emon ebezan.

Poesiarekiko bere dedikazioa bokazio  
autodidakta bat izan zan, bere bizitza es-  
perientziagar batera eboluzionatu eban.  
Bere lagun eta poeta homologoek, pare-  
korik bako poeta lez goraiiputzen eta des-  
kribatzen dabe, euskara oso ondo eza-  
gutzen ebala esanez. Juan Mari Lekuona  
poeta eta Euskaltzainak berari buruz esa-  
ten eban kalidade bikaineko poeta zala,  
euskara edertasun handiko mailara igo  
ebana, baina Gandiagaren literatur kalida-  
dea ondoen adierazten dauen esaldia ho-  
nako hau da: "*Poetak izan daitezke onak,  
oso onak, edo Gandiaga*" (J.M Lekuona).

1950eko hamarkadan, *Arantzazu*, *Egan*,  
*Euzko-Gogoa* eta *Olerti* aldizkarietan  
egindako kolaborazioei esker hasi zan  
Gandiagaren izena entzuten poeta gisa,  
eta laster lortu eban euskal poesian izen  
bat baino gehiago egitea. Urtez urte  
lehiaketa ezberdinak irabazi ebezan,  
1954an Zarauzko poesia lehiaketan lehen  
saria irabazi eban *Begion Lore* lanagaz,




1956an lehen saria lortu eban Arantzazuko  
lehiaketan *Elorriko lorak* lanagaz... *Elorri*  
1963an iritsi zan arte, bere maisulana, bere  
sorkuntza poetiko literarioaren muina.  
Ibon Sarasola filologo eta euskaltzainaren  
arabera, "*gera osteko poemarik gorana-  
hiena eta lortuena*". Poema liburu honek  
barruan zeraman naturaren maitaleagaz  
lotzen dau. Basoekaz, haitzekaz, leizeekaz  
eta Arantzazuko santutegia eta Menda-  
tako haurtzaroko esentzia naturala ingu-  
ratzen ebezan ingurune natural guztiagar  
lotuta sentitzen zan bera.

## MENDATA, BERE BAITAN

Bere herriak, eta batez be Orbelaunek,  
baserriak, eragin handia izan eben bere  
lanean. Bere obran elorriak, ura, loreak,  
txoriak... agertzen dira, bere familiarena  
bezalako urrutiko baserri-inguruko egu-  
neroko elementuak. Zazpi neba-arrebata-  
tik zaharrena zanez, etxeko beharretan la-  
gundu behar izaten eban, eta ahal zanean  
joaten zan eskolara. Sarriago ibiltzen zan  
itaurrean, umezain, ganaduzain, ura eta  
egur ekarle, edota errekaduak egiten.





Mendatako "Bitoriano Gandiada" liburutegia.

Orbelaun Mendatan dago, baina, hurbiltasunagatik, Arratzura joaten zan eskolara, mezarara eta doktrinara, harik eta 12 urtegar, 1940an, Arantzazura joan zan arte, ahalegin handia berarentzat, gaztelera ez ulertzen ez ebalako. Forun, Zarautzen eta Erriberrin jarraitu ebezan ikasketak. Forun euskaraz idazten hasi zan, berak aitortu bezala Arantzazun baldartutako euskara berreskuratzeko. Han idatzi ebezan bere lehen bertsoak.

Erriberrin filosofia ikasi eban 1948 eta 1951 artean. Han ikaskide batzuek euskaraz berba egitera ausartzen zan eta astero lan bat idazten eban euskaraz astero argitaratzen eben aldizkarirako. Bertan ezagutu ebezan Lauaxeta, Lizardi, Orixe, Arrese-Beitia eta Mitxelena bera be. Arantzazura itzuli zanean, euskal idazleak hobeto ezagutzeko aukera izan eban, eta Lizardi, Lauaxeta eta Orixe sakonago sartu ziran harengan. *"Euskara bera salbatzearren idazten genduan, euskara salbatuz, euskara baino zerbait gehiago be salbatuko genduelako ustetan"*

1954an abade egin zan. Arantzazun bizi izan zan eta bertan irakasle lana eta apaiz-lanak uztartzen ebezan. Bitorianok aitortzen eban hor hasi zala bere kalbariora. *"Eskolako lanek egun osoa hartzen eustazan, eta jaiegunetan apaiza nintzan, biak lan serioak ziran. Amorratua, haserretkor, zorrotza eta gogorra bihurtu nintzan"*. Estres guzti horrek bihotzekoa eragin eutson 1981. urtean. Txosten psikiatrikoan *"denbora galtzen ikastea gomendatu eutsoen"*, eta lau urte geroago *Denbora galdu alde* liburua argitaratu eban. Liburu atipiko honetan, poesia bere nortasunari buruzko gogoetekaz nahastu eban, eta bertan aitortzen eban ez zekiela lagunik izaten, ez eta gizartean portatzen be, eta belarra edo zuhaitza jaio beharko ebala.

Zalantza barik, bere bizitzako gorabeherak eta bere nortasun lotsati, barnerakoi eta sentimentala bere obran islatzen dira. Ezagutu ebenek Bitoriano pertsona apala, umila eta sentibera zala esaten eben, zakarra eta zalantzatsua, batez be eskolak ematen ebezenean, baina aldi berean maitagarria.

Poetak  
onak izan daitezke,  
oso onak  
edo Gandiaga.

J.M. LEKUONA

Bitoriano Gandiaga 2001eko otsailean hil zan, eta urte horretan Mendata bere jaioterriak hainbat omenaldi eskaini eutsozan, erlijio-ospakizunetatik hasi eta ibaldi neurtura arte. Mendatako mendi martxaren Ibilaldia aldatu eta Orbelaun baserria bisitatu eben. Urte horretan bertan, Euskaltzaindiko Literatura eta Onomastika Batzordeetako bilera lanak Mendatan egin ziran eta Udal Liburutegia Bitoriano Gandiaga Liburutegia izenagaz bataitatu zan. **UM**



Bitoriano Gandiaga bere maisulan "ELORRI"-gaz. Argazkia: "Bitoriano Gandiaga eta Mendata"© Mendatako Udala

# Botakarra

DELICATESSEN APALA



Gatxa da geure lonjetan iragan apal eta orainaldi distiratsuko arrain txiki eta gozo hau aurkitzea, *delicatesen* kontserban dagoena. *Botakarra*, *potakarra*, *paparda*, akula, edo orratza, bere izenak arin aldatu egiten dira, bizkorra be bada bere mugimendua, bere harrapariengatik ihes egiteko, atuna ta hegaluzea, besteak beste.

**P**apandroiari erreferentzia egiteko, txitxarroaren antzeko arraina, lirainagoa eta gogorragoa, geure eskualdean, Bermeon, *botakarra* izenez ezagutzen dana. Euskadiko beste herri batzuetan orratza edo lanzoi (Lekeitio), *potakarra* (Donostia) edo botakor esaten jakola jasotzen dau Euskaltzaindiak bere azterlanetan, eta gizartean arrain apaltzat hartu dala erreferentzia egiten daben testigantzekaz jasotzen dau: *"Pobriak jaten ditugu onelako gauzak: babarrun ta patata, porru ta azak [...] txitxarro berdelak eta potakarrak"*.

Gure kostaldean, batez be udagoiengan, urria aldera, ohikoa da botakar sardak ikustea, bost bat egunez agertzen dira eta gero desagertzen dira. Normalean, ez arrantzale profesionalek ez zaleek ez dabe espezie hau harrapaketa handizat

hartzten. Bermeon adinekoek gogoratzen dabe. Belaunaldi barriek aurkitzen eta balorau egiten dabe orain kontserban.

Espezie honen propietadeak sardinaren edo txitxarroaren oso antzekoak dira, baina zapore leunagoa dauko. Arrain urdina danez, elikagai osasungarria da, Omega-3, bitamina eta kaltzioan aberatsa.

Animalien erreinuan, harrapari handiek, hala nola atunak, hegaluzeak edo izurdeak, botakarren sarda bategaz topo egiteak baloratzen dabe jateko ezinhobea dalako eurentzat be.


Botakarraren izen zientifikoa *Scomberesax saurus* da, *Scomberesocidae* familiakoa,





Gure kostaldean,  
urrian, botakarra  
bankuak ikusten dira,  
5 egunez agertzen  
dira eta gero  
desagertu egiten dira.

30 eta 35 zentimetro arteko luzerakoa eta grisa da. Itxura luzexka dauko, masailezur luze eta finak, moko itxurakoa, goikoa behekoa baino motzagoa, bizkarraldeko eta uzkiko hegatsak jarraian, kolore urdin iluna bizkarraldean eta zilarreztatua alboetan. Erraza da espezie hau bere lehengusu urrunekaz nahastea, *belonidae* familiako arrain orratzekaz, hain zuzen be. Hauek be gorputz luzanga eta moko luze formako masailezurak dauke eta.



**Irudia:** Mario de Hormaechea Camiña. "Peces de mar y de río", 1975.

Botakarra arrain taldekoia eta pelagikoa da, ur-azaletik gertu egon ohi dana. Arriskuan sentitzen danean eta beste arrain batzuen jazarpenaren aurrean, saltu handiak egiten dauz uretatik kanpo. Errutea itsas zabalean izaten da uda hasieran. Arrautzak pelagikoak dira, 2 mm inguru neurtzen dabe eta harizpi zurrun eta finak dauke. Arrainen arrautzak, arrain txikiak eta zooplanktona jaten dau. Urdaibaiko estuariora botakarren sarda bat iristen danean, ohikoa izaten da, daukon goseagatik, aparejuei erraz lotzea eta gorputza uretan biratzean, erresistentzia handia izatea. Bere gorputz luzexkak zaildu egiten dau aparejutik askatzea. **UM**

## ERREZETA

# Botakarra entsalada usaintsua

### OSAGAIK

- Botakarra kontserban
- Errukula
- Tomate bat helduta
- Arbi zuri bat
- Patata bat
- 2 arrautza
- Kaparrak
- Piperbeltz zuria
- Oliba-olio birjina estra
- Bedar usaintsuak

Birrindu patata gordin bat eta egosi birrindura (5 minutu) uretan oliba-olio pixka bategaz, piperbeltz zuriagaz, gatz apur bategaz eta ezamihilu-koilara-txo txiki bategaz. Patata-arraildura prest dagoenean, gehitu bedar usaintsuak gustura eta koilarakada pare bat oliba-olio birjina. Egosi bi arrautza eta birrindu. Plateraren erdian errukula eskukada bat jarri, plater erdian kaparrakaz nahastu. Tomatea triangelutan moztu eta plateraren ertzetan jarri.

Jarri birrindura molde txiki batean (arrautza/patata), hustu moldea tomate zatien artean, eta tartekatu patata eta arrautza. Arbia tiratan moztu eta toma-tearen gainean jarri. Jarri botakarra errukularen gainean eta apaindu kaparrak.

Entsalada oliba-olio birjinagaz, limoi-tanta batzuekaz, bedar usaintsuekaz eta gatzagaz hornitu.

On egin!



**Ezagutu Gautegiz Arteaga**  
pausoz pauso



# ITSAS MANTZANILA

desagertzeko  
arriskuan



Itsas mantzanila.

Mantzanila edo Kamamila, antxinatik erremedio naturalen erregina, oso bedar usaintsu preziatua da. Askotarikoak dira osasunerako daukozen ontasunak, eta asko dira be honen azpi-espezieak. Urdaibain, orain dala gutxi arte, nekez kontserbatzen genduan hoietako baten eksklusibotasuna, itsas mantzanila edo *Matricaria maritima* izenez ezagutzen dana.

**I**HOBE Eusko Jaurilaritzako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak, Arabako Natur Zientzien Museoagaz, Aranzadi Zientzia Elkartegaz, Sestaoko Natur Zientzien Elkartegaz eta EHUGaz elkarlanean, EAEko Landaredia Baskularraren Zerrenda Gorrian (2010), itsas mantzanila izenaz ezagutzen danak, desagertzeko arriskuan dagoen espezie gisa agertzen da *Matricaria maritima*, eta populazino ñimiñoak agertu eta desagertu ziranez, B2c irizpidea aplikatu zan, fluktuaizino larriak adieraziz. Urdaibai zan, eta zehatzago esanda, Busturiako Axpe auzoa, Muskizko Pobeñagaz batera, Euskal Herrian egoan gune bakarra. Euskadin, Bizkaiko kostaldeak landara honen eksklusibotasuna gordetzen dau, Kantauriko kostaldetik, Bizkaitik, Galiziatik, Asturiasitik, Lugotik, Coruñatik eta Pontevedratik Itsaso Baltikoraino hedatzen dana.

Itsas kamamila itsas mailaren eta 20 metroko altueraren artean hazi egiten da (ez da ohikoa barrualdean ikustea), hareatzetan, kostaldeko arroketan, paduretan, dunetan, itsaslabarretan eta itsasotik gertu dagoen bideetan. Gurago dauz urte osoan heze egoten diran eremuak



eta mareak utzitako edo itsas hegaztiak ekarritako materia organikoak metatzen diran guneak. *Matricaria maritima* bi urtean behingo landare iraunkorra da, eta zurtainak dauko. Zurtain hoiek, askotan, tinte gorria dauke oinarrian. Oso berezgarria da erdian talamoa edo lorearen hartzailea sabelduna izatea. Lore hermafroditak eta lore femeninoak dauko, eta ekainetik irailera loratzen den.

2007an Eusko Jaurilaritzak Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren flora baskular mehatxuaren jarraipen txostena egin eban eta bertan *Matricaria maritimaren* 27 ale zenbatu ziran. Honen mehatxua espezie inbaditzaileak eta beste landare batzuen artean izandako eremuaren lehia dira.

Geure kostaldean daukon historia Urdabaigaz estuki lotuta dago. Itsas mantzanila 1985ean aipatzen da lehenengoz EAEn Lagako hondartzan, eta ondoren Axpe-Busturian eta Gortizen, eta geroago, 2006an, Muskizen. Gaur egun, Gortiz eta Lagatik desagertu da, Axpen desagertu dala dirudi. Muskizen kontserbatzen da. Axpeko aleen kasuan, paduretako betegarri zahar bateko muna batean kokatzen ziran, banako ale gazteak ziran, lore bakoak, eta guztiek 45 m<sup>2</sup>-ko azalera hartzen eben.

EAEko flora baskularren Liburu Gorrian deskribatutakoaren arabera, Axpen aurkitutako itsas mantzanila oso hondatuta egon zan hainbat urtez, eta honen arrazoia *Juncus maritimus* ihitokiaren areagotzean eta munaren higaduraren konbinazioa da, ernetzeko dagoen espazioa murriztuz.

Ugalketa-prozesuan be arazoak antzeman ziran, hala nola karraskarien bidezko harraparitza, larben bidezko infekzioa, hazien bideraezintasunaren kausatzat jotzen diranak. Halanda be, bildutako azken datuek indarbarritze posible bat adierazten eben, poblazino biziagoa eta ekoizpen handiagokoa izanik. Bada kudeaketa-plan bat 2004tik idatzia, baina oraindino egiteke dago.

*Matricaria maritima* be infusioan hartzen dan arren, ez da mantzanila arruntaren genero berekoa. Bere lehengusina, *matricaria chamomilla*, Urdaibain hazten da be. Kamamila, *Matricaria chamomilla* (*Matricaria recutita*, mantzanila gozoa edo

alemaniarra), 60 zentimetroko altuerara iristen dan urteko belarkara da. Ez dau ia ardurarik behar, oso landatarra da, eta zabaldu egiten da erein behar barik. Berrez hazten da, eta Europan be barietate batzuk landatzen diran arren, Urdaibain ohikoa da bereziki altuak eta nitrogenatuak diran eremuetan mantzanila basatia aurkitzea. Espezierik ohikoenak kamamila gozoa eta mingotsa dira. Askotan, kamamila eta bere lehengusina bikiak nahasten dira, txiribitak edo bitxiloreak; izan be, biek daukez lore zuriak, burutxoak edo botoi horiez inguratuta, baina irabazten deuto erabilera medizinaleri dagokienez.

Mantzanilaren buruxkek hanturen kontrako efektua, desinfektatzailea, diaforetikoa edo izerdiarazlea eta lasaigarria dauke. Osasunerako daukozan onurak printzipio aktiboen ondorio dira: funtsezko olio, flavonoideak, muzilagoak edo gatz mineralak, besteak beste. Funtsezko olioak hanturen kontrakoa da, antiseptikoa, espasmolitikoa eta lasaigarria, eta horregaitik sartzen da mantzanila loaren erritmoan onuragarriak diran printzipio bioaktiboak daukezen Euskadiko landare-espezieen zerrendan. Horregaitik, ez da harritzekoa landare hau erabiltzea gaixotasun desbardinaren tratamenduan, hala nola espasmo muskularrak, loezina, min erreumatikoak eta hantura-prozesuetan bere lasaigarri efektuak dirala eta.

Haur-medikuntzan, sendabedar hau infusioan erabiltzen da gripearen, gastro-hes-teetako arazoan edo behearanzkoen ondorioak arintzeko. Eta kanpotik aplikatuz gero, sendatzen zailak diran zauriak sendatzen laguntzen dau mantzanilak, arazo dermatologikoetarako, intsektuen ziztadetakoko edo negarrerria edo konjuntibitiseko kasuetan.

Edarrietan likoreei usaina emoteko erabiltzen da; kosmetikan, txanpu leungarrietan erabiltzen da, ilea argitzeko eta eguzkiaz babesteko gelak egiteko, lurrungintzan eta jaboietan be erabiltzen da. Bitxikeria lez, mantzanilazko lore lehorren proportzio bat erabiltzen da artilea horiz, laranjaz edo berdez tindatzeko. **UM**

## Urdaibain ohikoa da eremu altu eta nitrogenatuetan kamamila basatia aurkitzea.



**Irudia:** Mantzanila arrunta. *Chamomilla recutita*.

### Bazekenien...?

- Kamamila berba grezierazko *chamaimelon* berbatik dator, berbaz berba "lurraren sagarra". Grekoek mantzanila usaina sagar-usainaren antzekoa zala uste eben.



# Garrantzitsua da daukaguna zaintzea



Elantxobe, Mundaka eta Bermeo arraunaren erreferente dira Urdaibain. Udako kirola da, eta ekainetik irailera bete-betean bizitzen da, kirol-lehiaketak hasten diranean, zaleak taldearen palakada bakoitzagaz bizi-tuz. Halanda be, klubena, taldeak, harrobia eta zaleak ur gainean mantentzeko, urte osoan zehar izaten da.

**U**rdaibai beti izan da arraun munduari, eta bereziki traineruei, leial izan jakon eskualdea. Antxinako tradizioko kultura izan da beti, eskualde osoa hartzen dauena, eta ez kostako herriak bakarrik", Aitor Llona Bermeoko Arraun Elkarteko zuzendariak dinoenez. Ez jako arrazoirik falta antxinakoari dagokionez, kirol honen jatorria portura azkar itzultzen ziran arrantzaleen lehiatik baitator, harrapaketak saltzen lehenak izateko. Beste behin be, lehiaketa eta kirol bihurtutako lana.

Estropada-egunak egun bereziak dira herrietan, kalera irteteko egunak, gozatzera, sufritzera eta giroan murgiltzeko egunak. "Bermeoko, Mundakako, Elantxobeko, Sukarrietako eta inguruetaoak beti izan dira jarraitzaileak, eta bere txalupai zein eskualdekoei euren babesa erakutsi deute", azaldu dau Dani Artadi Mundaka Arraun Elkarteko kideak. Elantxobe Arraun Elkarteko Patxi Egurrolak bat egin dau haus-



narketa honegaz: "Herritarren eta Udalaren babesa dogu...igaz Busturialdeko traineruagaz lortu gendun maila-igoera baino lehen, dozenaka zale batu ziran portuan traineruari azken bultzada emoteko, eta, egia esan, hunkigarria izan zan".

Urdaibaiko zaleak fidelak dira, halanda be, harrobiaren egoerak kezkatzen dau, belaunaldien arteko erreleborik ezak. "Urdaibain arrauna gustatzen da, nahiz eta gaur egun traineru lehiaketak ikusgarritasun handiagoa izan, batel eta trainerillekaz alderatuta. Harrobia daukogu, baina lehia handia dago beste kirol batzuekaz, eta gazteenek ilusioz beteta jarraitzea lortu behar da. Alebinak eta Gazteen maila artean, inguruko klubek kirola egiteko eta pertsonalki prestatzeko lan egiten dogu. Proiektu erakargarriak izan behar dira, eta guztiek parte hartu behar dabe klubean", azaldu dau Dani Artadi Mundakako klubatik. Bestalde, Elantxobeko klubeko Patxi Egurrolak argitu dau goiko mailetan aurkitzen dabezela arazo gehien. "Arrauna ziklikoa da, gaur egun ume asko doguz geurea bezalako herri txiki batean, eta, egia esan, oso pozik gagoz... nahiz eta beti ez dan horrela izan. Baina kategoria nagusiak aztertzen badoguz, justu-justu gabilz. Uste dot geure klubean ez ezik, banku finakoko arraunketa orokorran be gertatzen dala".

#### KLUBEN ARTEKO LANKIDETZA


Eskualdeko hiru klubek urteetan zehar elkarlanerako formula onena bilatu dabe lehiakorrek izateko eta euren arraunlarien zerrendak goragoko mailetan osatu ahal izateko. Talde bateratu bat sortu eben, Urdaibai Arraun Elkartea, baina ez eban fruiturik emon. Elantxobek eta Mundakak, urte batzuk modu independentean bogau ondoren, "Busturialdea" izeneko proiektuan bat egitea erabaki eben. Izen horregaz, lehiatuko da trainera uda honetan ARC-1 Ligan. "Urteekaz danok ikasten dogu iraganeko akatsetatik, eta ulertzen dogu lankidetzak beharrezkoa dala. Lan honetan ari da gizonezko trainerua: «Busturialdea». Bertan, eskualdeko klub guztietako arraunlariak doguz, Mundaka eta Elantxobe eskuz esku aritzen dirala. Denboran gehien irauten ari dan baterako proiektua da, eta uste dot etorkizunean jarraitu beharreko bidea markatzen ari dala", azaldu dau Patxi Egurrolak. "Klubek arteko edozein lanki-

detza ona eta beharrezkoa da. Bermeogaz elkarlanean aritzen gara beheko kategoriek lehia daitezten Bermeoko portuan estropadak antolatuz edo hiru klubek artean materiala eta beharrak partekatuz. Arraunlariak aldatzea be ohikoa da klubean artean", esaten dabe Mundakatik.

Klubek bat egiten daben gaia emakumezkoen harrobia gehiago lantzeko beharra da, goragoko mailetan lehiatu daitezten. "Ondarroa bezalako klub batzuk oso ondo ari dira, eta uste dot hor begiratu behar dogula", uste dabe Elantxoben. Bermeon barriz, gaintitu bako gaia ikusten dabe: "Emakumezkoen talde batzuk >>>

"Busturialdea" gehien irauten ari den proiektua da, eta uste dut jarraitu beharreko bidea markatzen ari dala.

PATXI EGURROLA



Argazkia: Elantxobe Arraun Elkartea

*badagoz, emakumezkoen harrobia bultzatzeko ahaleginetan, baina kimu berdeak baino ez dira merezi dauen dimentsioa emoteko saiakera desiragarri batean. Gainditu bako gaia da, ez harrobiko arraunlaririk ez izateagatik, baizik eta trebatzaile barririk ez izateagatik, gero eta urriagoak baitira, baita beharrezko azpiegitura be."*

## Badira emakumezkoen talde batzuk, baina kimu berdeak dira, merezi duen dimentsioa eman nahian.

**AITOR LLONA**

Komunikabideak, erakundeen laguntza eta babesle garrantzitsuen inplikazioa ezinbestekoa izan da arraunaren gorakadarako, batez be traineruen gorakadarako. Azpimarratzekoa da telebistaren papera, kirol honi dimentsio barri bat emon deusolako. Klubak eskertuta agertu dira estropaden emonaldientatik, izan be, zaletasunak eta kirolaren ezagutzak

gora egitea lortu dabe, emakumezkoen lehiaketak ikusarazi dabez eta arraunlari batzuk pertsonaia ezagun be bihurtu dabez, "duela oso urte gutxi, Korta bakarrik ezagutzen gendunean, hau pentsaeuzina zan", azaldu dau Patxi Egurrolak. Kirolaren laguntza honetan, erakundeen zeregina be funtsezkotzat jotzen dabe; "bestela, ezinezkoa izango litzateke", azaltzen dabe Bermeotik. Halanda be, Elantxobek beren arazo ekonomikoak aitortzen dauz. "Erakundeen laguntza ezinbestekoa da, eta arabere gehiago herri txikiak klubetan, babesletza-aukerak dezente murrizten diralako. Erakundeek arraunaren alde egiten dabe, eta laguntza hori eskertu behar jake; halanda be, geure errealidade ekonomikoa nahiko itogarria da, eta horrek arraunlariei emoten jaken arretan eta kirolarien errendimenduan eragiten dau. Garrantzitsua da daukoguna zaintzea".

Mundakatik arrauna kirol garestia dala adierazten deuskue eta erakundeen laguntza lasaitasuna suposatzen dauela, "ez bakarrik arlo ekonomikoko laguntzentatik, baita kluba bistaratu egitean be, lortutako lorpenen publizidadeagatik, estropadetan, ikastaroetan eta abarretan emondako baimenengatik be. Herrietan, geure udalek ahal daben neurrian laguntzen deuskue, eta, azkenean, indarrak batzea da kontua".

Haurren kategorietako lehiaketa batzuk amaituta dagoz, eta goi-mailako ligen hasieratik gertu; kirol-arloan, klubak positiboak dira. Bermeoko Aitor Llonak arrauna kirol olimpiko lez gainditu bako gaia dala uste dau be. "Urdaibailko arrauna erdibidean dago, baina oraindik ustiatzeke dagoen zaina da, eta figura barriak aurkitu behar dira, bai eta teknifikatzeko eta aztertzeke dagoen aukerak be, hala nola, arraunketa banku mugikorrean edo olimpiakoan, eta horren ondoriozko aukerak". Bestalde, Patxi Egurrolak, Elantxobetik, gauzak ondo egiten ari dirala uste dau. "Banku finkoko arraunaren adierazlerik handienari begiratzen badeutsagu, traineruari alegia, eta, zehazkiago, gizonezkoen traineruari, bi ontzi dagoz eskualdean, bata Bermeon eta bestea Busturialdean. Bata ACTn eta bestea KAE-1ean, eta badirudi, gorabeherakaz be, dana ondo doala bi proiektuetan".

\*ACT: Traineru Kluben Elkarte



\*\*KAE-1: Kantauriko Arraun Elkarte



**Argazkia:** Elantxobe Arraun Elkarte



Ekoetxea Meatzaldea



Ekoetxea Txingudi



Ekoetxea Azpeitia



Ekoetxea Urdaibai



# ekoetxea sarea

**Euskadiko ingurumen zentroyen sarean naturaren altxorrez gozatu eta jasangarritasunaz gehiago ezagutzeko aukera duzu.**

**Zain dituzu hamaika esperientzia ahaztezin.**

En la red de centros ambientales de Euskadi puedes disfrutar de los tesoros de la naturaleza y conocer más sobre la sostenibilidad.

Te esperan infinidad de experiencias inolvidables.



# ERRENTA RENTA21

**Apirilaren 4tik ekainaren 30era**

Del 4 de abril al 30 de junio



**AURREZ AURREKOA**  
PRESENCIAL

**Ogasuneko eta Gertu bulegoetan,  
8:30etatik 19:00etara,  
aurretiko hitzorduarekin  
94 406 66 00 telefonoan**

En las oficinas de Hacienda y Gertu,  
de 8:30 a 19:00,  
con cita previa  
en el 94 406 66 00



**TELEFONOZ TELÉFONO**

**94 608 3000**

**8:30etatik 19:00etara**  
de 8:30 a 19:00



**DIGITALA DIGITAL**

**[www.bizkaia.eus/errenta](http://www.bizkaia.eus/errenta)  
Bizkaia Errenta app**

[www.bizkaia.eus/renta](http://www.bizkaia.eus/renta)  
App Renta Bizkaia



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral